

## **DONOSTIA / Etorkizuneko liburutegiaren inguruko gogoeta egingo dute egunotan**

XABIER ETXABE

Urriaren 24ean ospatzen da Liburutegiaren Eguna eta aitzakia paregabea izango da kultur ekipamendu hauen etorkizunaren inguruan gogoeta egiteko. 2009an, milioi bat bisita zenbatu zituzten hiriko udal liburutegietan, 3.359 lagun egunean. Maileguei dagokienez, milioi erdia izan ziren iaz.

Etorkizunean, ordea, datu hauek guztiz bestelakoak izan daitezke. Urrutira joan gabe, aurten, mailegatutako liburuen artean, 33 liburu elektroniko barneratu dituzte eta Arantza Urkia udal liburutegietako arduradunak jakinarazi duenez, "une oro daude maileguan.

Errealitatea egunero ari da aldatzen eta liburutegiek egoera berriei egokitzen jakin behar dute. Internet eta aro digitala erronka berria dira liburutegientzat. Maileguan ez ezik, informazio bilaketan ere internetek eta wikipediak liburutegiko liburuen lekua bete dute gazte belaunaldien artean. Liburutegiek, ordea, ez diote aisi gune eta herritarren topaleku izateari utzi. Hain zuzen, alderdi horiei etekin handiagoa nola atera pentsatu eta eztabaidatzeko jarduerak prestatu dituzte.

Gaur, 19:30etik aurrera, Lluís Angladak hitzaldia eskainiko du San Jeronimoko udal liburutegian. Liburutegiek sarean betetzen eta beteko duten lekua inguruan hitz egingo du.

Ostegunean, Javier Celayaren txanda izango da. Web 2.0 eta gizarte sareetan aditua da Celaya eta aro digitalean barneratzeko liburutegiek eman beharreko pausoen inguruan hitz egingo du, 19:30ean, San Jeronimo kaleko udal liburutegian.

### **Liburutegiaren Eguna**

Gaur, 18:00etan, Loiola kultur etxeko liburutegian. Lamiak taldearen eskutik, Ipuin abarrez, gu irribarrez. 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzat.

Gaur, 18:00etan, Ernest Lluch kultur etxeko liburutegian. Entzun potxolo! Ipuinak egiten du bilin-bolo. 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzat.

Bihar, 18:00etan, Okendo kultur etxeko liburutegian. Hain dira bitxiak ipuin miresgarriak, Lamiak taldearen eskutik

Etzi, 18:00etan, Lugaritz kultur etxeko liburutegian. Lamiak taldearen eskutik, Hain dira bitxiak ipuin miresgarriak.

Etzi, 18:00etan, Larrotxene kultur etxeko liburutegian. Bihotzak epeltzeko ipuinak. 5 urtetik gorakoentzat.

Etzi, 19:00etan, Loiola kultur etxeko liburutegian. Psikologia solasaldia: Mitologia y psicología: el conocimiento olvidado.

Ostiralean, 12:00etan, Okendo kultur etxean. Pintze txikia Ixabel Millet.

Ostiralean, 18:00etan, Casaresen. Klarinete bostekoaren kontzertua.